



TopaGune Ikastaroa: Ekintza komunitarioa: praktikatik ikasten



Egun, inguruan nahiz urrunago dauden praktikak ezagutu eta aztertu nahi dira; esperimentazioari balioa eman eta hark sortutako irakaspenetatik ikasi. Elkarteen proiektuak, gizarte politiken zerbitzuak eta hurbileko ekipamenduak hartuko dira aintzat.

Ira. 10 - Ira. 11 2025

Kod. G29-25

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 10 - Ira. 11 2025

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

“Gizarte erronkei modu kolektiboan heltzen dieten ekimen eta proiektu guztiak jotzen ditugu ekintza komunitario gisa, proposatzen dutena auzoetako eta udalerrietako bizi baldintzak hobetzeko eta gizarte inklusiboagoa eta kohesionatuagoa eraikitzeko egiten badute, herritarren inplikazioa eta protagonismoa bilatuz eta erraztuz”. Horrela ulertzen dugu ekintza komunitarioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Lurraldeko udalen ekintza publikora bideratutako marko kontzeptual, estrategiko eta operatiboan (Markoa).

UIK-en testuinguruan eta Topagunea programaren baitan 2021. urteaz geroztik ekintza komunitarioa ikuspegi ezberdinetatik aztertu dugu: krisiari komunitarioki emandako erantzunez jardun gara; erronkez aritu gara; bazter eta ausentzian jarri dugu ikusmira eta ekintza komunitarioa ahalbidetzeko baliagarriak diren espazioen diseinuaz ere aritu gara.

2025eko edizioan komunaren eraikuntzan jarri nahi dugu arreta, esperimentaziotik eskuratutako ikaskuntzetan. Kolektiboaren eraikuntza erraztu eta oztopatu dezaketen alderdietan sakondu nahi dugu; sakondu nahi dugu xedearen eraikuntzan, ekintzan, erabakiak hartzean, loturatan, harremanetan eta abar.

Helburuak

Ekintza komunitarioaren intentzionalitatea gogoraraztea.

Komuna dena eraikitzeko gakoak partekatzea praktika eta hurbilketa desberdinetatik.

Prozesu kolektiboen dimentsio indibidualari eta erlazionalari buruz hausnartzea

Esperientziei buruzko ikaskuntzak eta gogoetak partekatzea.

Esploratu gabeko eta esploratu beharreko eremuak identifikatzea

Programa

2025-09-10

08:45 - 09:00	Erregistroa / Registro
09:00 - 09:15	Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena:
09:15 - 10:15	“Hitzaldia: Construir lo común” Joan Subirats Humet
10:14 - 13:15	Komuna eraikitzeko gakoak_ Claves para construir lo común
10:15 - 10:45	Ikasketak komunitate intentzionaletatik_ Aprendizajes desde las comunidades intencionales
10:45 - 11:15	Ikasketak Arabako Kontzejuetatik _ Aprendizajes desde los Concejos de Álava
11:15 - 11:45	Atsedena
11:45 - 12:15	“Ikasketak ikas komunitateetatik_ Aprendizajes del trabajo con comunidades educativas” Amelia Barquín López
12:15 - 13:15	Komuna eraiki zerbitzu eta ekipamenduetatik: Bartzelonako udala eta Oñatiko Udala _ Construir lo común desde los equipamientos y servicios: Ayuntamiento de Barcelona y Ayuntamiento de Oñati
13:15 - 14:30	Eguneko edukien inguruan hitz egiteko denbora- Tiempo para conversar sobre los contenidos de la mañana.

2025-09-11

08:45 - 09:00	Harrera
09:00 - 09:15	Jardunaldiaren aurkezpena_Presentacion dela jornada
09:15 - 10:30	ON DO KO proiektua. Ekintza komunitarioa lehen pertsonan: harremanak eta loturak . _ Proyecto ON DO KO. La acción comunitaria en primera persona: relaciones y vínculos.
10:30 - 11:15	Tentsioak harremanak eta loturak ezberdinen artean jostean, eta norbere boterea._ Tensiones al tejer relaciones y vínculos comunitarios entre diferentes y poder personal.
11:15 - 11:45	Atsedena

11:45 - 14:25	Proiektu eta prozesu komunitarioak: arrakala aukerak_ Proyectos y procesos comunitarios: diferentes grietas de oportunidad
---------------	--

14:25 - 14:30	Itxiera
---------------	---------

Zuzendaritza



Mikel Pagola Tolosa

Gipuzkoako Foru Aldundia

Mikel pagola Tolosa Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko- Sozialeko zuzendaria

Irakasleak



Amelia Barquín López

Mondragon Unibertsitatea

Amelia Barquín filologian doktorea da eta Mondragon Unibertsitatean (HUHEZI fakultatean) irakaslea. “Kulturarteko Hezkuntza” eta “Generoa eta hezkuntza” materiak irakasten ditu bertan (Irakasle Ikasketetan eta EKOMU masterrean). Hainbat testu argitaratu ditu eta hainbat kurtso eta hitzaldi eskaini ditu interesatzen zaizkion gaien inguruan: kulturarteko hezkuntza, ikasle etorkinen trataera, hizkuntzaren erabilpen ez sexista, hezkuntza eta generoa, eta sefardien literatura, besteak beste. Amelia Barquín es doctora en filología y profesora de Mondragon Unibertsitatea (facultad HUHEZI), donde imparte las asignaturas “Educación intercultural”, y “Género y educación” (en el grado de Magisterio y en el máster EKOMU). Ha publicado diversos artículos y monografías y ha ofrecido cursos y conferencias en los siguientes campos: educación intercultural, intervención educativa con alumnos de origen inmigrante, uso no sexista de la lengua e, educación y género y literatura sefardí.



Joan Subirats Humet

Ekonomia Zientzietako doktorea. Zientzia Politikoko katedraduna eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Gobernu eta Politika Publikoen Institutuaren sortzaile eta ikertzailea. Politika publikoen analisiari eta kudeaketari buruzko gaietan espezializatua. Hainbat komunikabiderekin kolaboratzen du. Gaur egun, Bartzelonako Udaleko alkateordea da, eta Kultura, Hezkuntza, Zientzia eta Komunitate arloko burua.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-06-30 ARTE	2025-09-10 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	61,00 EUR
Orokorra	-	87,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	74,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	61,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	74,00 EUR
Elkar	-	74,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2025-06-30 ARTE	2025-09-10 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	61,00 EUR
Orokorra	-	87,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	74,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	61,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	74,00 EUR
Elkar	-	74,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa